



ZARAUZKO UDALA

# XXXIV BASARRI BERTSOPAPER SARIA

(2018)



 KULTURA  
ZARAUTZ

## XXXIV. BASARRI BERTSOPAPER SARIA

Zarauzko Udalak euskara suspertu eta bertsogintzari lagundu nahian, XXXIV. Basarri Bertsopaper saria antolatu du.

### 1.- DIRU SARIA

- Lehenengo saria: 1.500,00 euro eta txapela
- Bigarren saria: 1.000,00 euro eta oroigarria
- Sariak zatiezinak izango dira, eta, lanek behar adinako mailarik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke.
- Sarien diru kopuruek indarrean dagoen legedian ezarritako atxikipena izango dute.
- Parte-hartzaile berak sari bat baino gehiago ezin izango du eskuratu. Lortzen duen saririk handiena emango zaio.

### 2.- LANEN EZAUGARRIAK

- Bertsopaper bakoitzak, gutxienez, zortzi bertso izan behar ditu.
- Parte-hartzaileek nahi adina bertsopaper bidal ditzakete.
- Lanak originalak, argitaragabeak eta beste inolako lehiaketetan saritu gabeak izan beharko dira.
- Gaia librea izango da.

### 3.- LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2018ko uztailaren 31n amaituko da.

### 4.- LANAK BIDALTZEKO HELBIDEA

**Zarauzko Udala - Kultura Departamentua**

Sanz Enea Kultur Etxea

Nafarroa kalea, 22 20800 Zarautz

### 5.- INFORMAZIOA

943 00 51 20 telefonoa edo [kultura@zarautz.eus](mailto:kultura@zarautz.eus)

### 6.- LANAK NOLA AURKEZTU

- Ordenagailuz/makinaz idatzita, eta bertsotik bertsora bi lerro zuri utziko dira.
- Lan bakoitzeko ale bakarra bidali behar da.
- Lanak orriaren alde batean bakarrik idatzita bidali behar dira.
- Ez dira posta elektronikoz jasotako lanak onartuko.
- Izengoitiz sinatuko dira.
- Aparteko gutun-azal itxi batean datu hauek jarriko dira: egilearen izena, helbidea, telefonoa eta beharrezkoak diren gainontzeko xehetasunak. Gutun-azalaren kanpoaldea izengoitia idatziko da.

### 7.- EPAIMAHAIA

- Epaimahaia Zarauzko Udalak izendatuko du, eta horretarako, pertsona adituak aukeratuko ditu.
- Epaimahaikide izango da aurreko urteko Basarri bertsopaper sariaren irabazlea.
- Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

### 8.- EPAIA ETA SARI BANAKETA

Epaia 2018ko irailean emango da jakitera.

### 9.- LANEN JABETZA ETA SARITU GABEKO LANAK

Saritutako lanen jabetza Zarauzko Udalaren esku geldituko da, eta honek, sari-banaketa ondoren, hamar urteren barruan eman ditzake lanak argitara. Kasu horretan, egileak ezingo dio inolako ordainik eskatu Udalari.

Egileek sei hilabeteko epea izango dute saritu gabeko lanak jasotzeko eta, ondoren, Udalaren esku geratuko dira.

### 10.-LEGE BARRUTIA

- Araudi honetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, epaimahaiak dauka erabakitzeko ahalmena.
- Lehiaketa honetan parte hartzeak berarekin dakar oinarri eta baldintza hauek guztiak onartzea.